Eusko Jaurlaritzaren
Informatika Elkartea

Sociedad Informática
del Gobierno Vasco

Euskararen Kudeaketa Plana ezartzeko Aholkularitza zerbitzua 2022

Zehaztapenen dokumentua

(Erraztua publizitatearekin)

Data: 2021/09/30

Mediterráneo, 14 • 01010 Vitoria-Gasteiz • Posta-kutxatila / Apartado: 809 • 01080 Vitoria-Gasteiz • Tel. 945 01 73 00* • Fax. 945 01 73 01 • www.ejie.eus

Dokumentu honen jabea Eusko Jaurlaritzen Informatika Elkartea – Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A. (EJIE) da eta ISILPEKO edukia du. Dokumentu hau ezin da errepikatu, ez guztiz ez zatika, ezta beste pertsona batzuei erakutsi ere, ezta bere ematea kausatu duten helburuetatik kanpo erabili ere, EJIEk aldez aurretik eta idatziz baimendu ezik. Kontratu baten ondorioz ematekotan, bakarrik kontratu horretan espresuki baimenduta dagoenerako erabil daiteke. EJIEri ezin izango zaio inola ere leporatu dokumentuaren edizioan balizko akatsak edo omisioak egonez gero.

Bertsioa	Data	Aldaketetako laburpena	Nork eginda:	Nork onartuta:
1.0	2021/09/30	Lehenengo bertsioa	Alberto Mz. de Guereñu	Ander Martínez

Edukia

1 Sarrera 4
1.1 Proiektuaren aurrekariak 4
2 Kontratuaren helburua 5
2.1 Zerbitzuaren helburua eta irismena 5
2.2 Zerbitzuaren deskribapena 5
3 Planifikazioa eta Antolakuntza 7
3.1 Zerbitzuaren planifikazioa 7
3.2 Lan taldearen antolakuntza 7
3.2.1 Baliabideen esleipena 7
3.2.2 Lantaldea 7
3.2.3 Lantaldearen hasierako eraketa 7
3.2.4 Aldaketak lantaldearen osaeran 7
4 Jarraipen, kontrol eta gainbegiratzeko mekanismoak 9

1 Sarrera

1/2014 Erabakian, urtarrilaren 1ekoan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia Eusko Jaurlaritzan V. planifikazio denboraldirako (2018-2022) onartzen da. EJIErentzat erabaki horretatik ondorioztatzen diren betebeharrak betetzeko asmoz, enpresan euskararen egoeraren diagnosi-ikerketa eta bertako Euskara Plana diseinatzeko proposamena lantzeko kontratazio bat gauzatu zuen EJIEk Aholkularitza enpresa espezializatu batekin.

1.1 Proiektuaren aurrekariak

Kontratazio horren ondorioz, Euskara Sustatzeko Taldeak 2014an EJIEko euskararen egoera diagnosi bat eta Kudeaketa Plan bat landu zituen.

Eusko Jaurlaritzak, 62/2018 Erabakian, otsailaren 27ekoan, 2018-2022 urteetarako VI. plangintza sortu zuen eta berriro ere EJIEk, Jaurlaritzaren plana oinarri hartuta, 2018ko lehenengo egunetan bere Euskararen Kudeaketa Plana berriztu zuen.

Gainera, 2017an bukatu zen denboraldiko eta plan berriaren lehenengo lau urteetako esperientzia ona izan dela eta lortutako helburuek euskararen erabilera bultzatu egin dutela ikusi eta gero, plana jarraitzea komenigarria dela erabaki du enpresak eta hemendik sortzen da plegu honetan agertzen den beharra.

2 Kontratuaren helburua

2.1 Zerbitzuaren helburua eta irismena

Kudeaketa Planean agertzen diren sustatzeko, laguntzeko eta zabaltzeko lanak egitea.

Barneko komunikabideetan euskararen erabilera handitzeko, itzulpen zerbitzuak eskaintzea.

EJIEk hizkuntza irizpideak zehazteko eta plan estrategikoa aprobatzeko, aholkularitza zerbitzuak eskaintzea.

Bikain ziurtagiria lortzeko asmoz 2017an hasi zen lanari segida ematea: oraingo egoera ebaluatzea, gabeziak gainditzeko laguntza ematea eta ziurtagiria lortzeko behar diren ekintzak gauzatzeko laguntza ematea.

2.2 Zerbitzuaren deskribapena

Zerbitzuaren deskribapena honako hau da:

Kudeaketa Planeko lanekin jarraitzea.

Kudeaketa Planean agertzen diren lanak ondoko hauek izango dira. Zerbitzu honen bitartez, lan guztiekin jarraitzea (martxan jarriz edo hasita daudenak jarraituz) eskatzen da.

- Euskararen erabilera handitu:
  - Orain existitzen den Mintza taldea dinamizatu eta bertan jarduerak proposatu eta gauzatu.
  - Lehen hitza euskaraz izan dadin lanketa egin (telefonoz, harrera nagusian, CAU…).
  - Langileen arteko harremanetan eragiteko interbentzio eta ekimen berezituak aplikatu.
  - Hizkuntza paisaiako erabilera kopuruari eusteko jarraipena egin.
  - Zabalkunde eta erabilera handiko dokumentazioan euskararen presentzia areagotzen hasi.
- Euskararen ezagutza handitu
  - Trebakuntza saioen bidez laneko hizkuntza espezifikoa landu (hiztegia, emailak idazteko, aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzeko).
  - Euskaraz irakurtzeko liburutegia mantentzeko lagundu.
  - Euskara ikasteko baliabideak eskaini.
- EJIEko langileen motibazioan eragin.
  - Euskara Batzordeko kideekin hausnarketa saioak antolatu.
  - Kolektibo osoaren parte hartzea lortzeko lehiaketak antolatu.
  - Euskararen aldeko giroan eragiteko ekintzak egin (Euskararen eguna, euskararen agenda…).
  - Gizarteak eskaintzen dituen ekimenen inguruko dinamikak. Adib., Korrika.
  - Euskara Planari buruzko komunikazioa bermatu.
- Euskara Plana erakundean txertatu
  - Euskara ikasteko baldintzak eta metodologia birpentsatu
  - EJIEko hizkuntza irizpideak zehaztu
  - Zuzendaritzak Euskara Batzordean parte hartzeko bideak landu.
  - Euskara Plana EJIEren sisteman integratzeko bideak aztertu (PE eta zerbitzu berriak diseinatzen direnean…).
  - Euskara Planaren jarraipena egin.

Itzulpen zerbitzuak eskaintzea.

EJIEK itzulpen zerbitzu batzuk kontratatu egin ditu beraren jarduerek behar dituzten testuak eta dokumentuak euskaratzeko. Dena den, itzuli behar den testua oso motza denean, prozedura luze jotzen da. Horregatik zerbitzu honetan testu motzen itzulpena egitea eskatzen da. Testu motza esaten dugunean, orrialde bat baino ez duen testua izango da.

Aholkularitza zerbitzuak eskaintzea.

Azken helburua, alegia, Bikain ziurtagiria lortzea, EJIEK Euskararen plan estrategiko bat aprobatu behar dut eta plan hau ixteko hizkuntza irizpideak zehaztu behar ditu. Eusko Jaurlaritzak aprobatu dituzten irizpideetan oinarritzea erabaki du EJIEk, baina irizpidea hauek EJIEren errealitatera eta markora egokitzeko laguntza behar

du. Enpresa esleipendunak laguntza hau emango dio EJIEri zerbitzu kontratazio honi esker. Halaber, plan estrategikoa aprobatzeko laguntza ere emango dio enpresa esleipendunak.

Bikain ziurtagiria lortzeko eman behar diren urratsetan laguntza ematea.

- Oraingo egoera ebaluatzea.
- Gabeziak gainditzeko laguntza ematea.
- Ziurtagiria lortzeko behar diren ekintzak gauzatzeko laguntza ematea.

3 Planifikazioa eta Antolakuntza

3.1 Zerbitzuaren planifikazioa

Zerbitzua emateko ordutegia astelehenetik ostiralera, urteko lan egun guztietan eta lan ordutegian, izango da, enpresa esleipendunaren egoitzan; eta noizean behin, zerbitzuaren beharrak eskatzen duenean, EJIEko egoitzan (Mediterraneo Etorbidea, 14, Vitoria-Gasteiz) eskainitako pertsonen presentzia bermatu behar izango du.

Enpresa lizitatzaileek beraien eskaintzan ordutegia proposatuko dute.

3.2 Lan taldearen antolakuntza

3.2.1 Baliabideen esleipena

Enpresa esleipendunak zerbitzua EJIEko ordutegiaren barruan bermatu behar izango du. Eskatutako zerbitzua ondo emateko prestakuntza egokia duen pertsona batek emango du.

3.2.2 Lantaldea

Enpresa lizitatzaileek konpromisoa hartzen dute, esleipenduna izanez gero, taldeari eusteko, eskaintzan ezarritakoaren arabera, eta kontratuaren indarraldian zehar, eta, behar izanez gero, taldea handitzeko. Kontratua gauzatzeko proposatutako baliabideek kontratuaren hasieratik esleituta egon beharko dute. Baliabideak aldatu edo ordeztu behar izanez gero, EJIEko Giza Baliabideen Sailari jakinarazi beharko dio aldez aurretik, gutxienez egun natural bat lehenago, eta EJIEko Giza Baliabideen Sailak aldaketa edo ordezkapen hori onartuko edo ukatuko du. Nolanahi ere, ordezkoak edo ordezkoek eskatutako titulazioa izango dute.

EJIEko Giza Baliabideen Sailak zerbitzuei esleitutako baliabideak aldatzeko eskatu ahal izango du, baliabideak egokiak ez direlako edo eskatutako kaudimen- zein teknika-baldintzak betetzen ez dituelako, edo kontratistak egiazkoak ez diren inguruabarrak adierazi dituelako; kasu horretan, kontratua deuseztatu ahal izango du, eta kalifikazioetan hurrengo enpresa lizitatzaileari esleitu.

3.2.3 Lantaldearen hasierako eraketa

Lanak gauzatzeko kontratua formalizatu ondoren sartu beharreko lantaldeak esleitutako eskaintzan zerrendatutako osagai eta profilez osatuta egon beharko du, eta, ondorioz, balioetsita.

Esleipena egin ondoren taldea eskaintzan ezarritakoarekin bat ez datorrela ikusiko balitz eta:

- Enpresa esleipendunak justifikazio idatzia, zehatza eta nahikoa aurkezten badu, aldaketa eragin duen arrazoia azalduz, honako hau egingo da:
  - Enpresa esleipendunak eskatutako titulazioa duten ordezkoak aurkeztea.
  - Ordezkoak EJIEko Giza Baliabideen Sailak onartzea.
- Aldaketa justifikatutako arrazoiarekin bat ez datorrela frogatuz gero, EJIEk eskubidea izango du ordezkoari edo ordezkoei onarpena emateko ez ezik, baita esleipena berrikusteko eta, hala badagokio, eskaera/kontratua hutsaltzeko ere, baldin eta hori aipatutako esleipenean elementu erabakigarria bada.

3.2.4 Aldaketak lantaldearen osaeran

EJIEri dagokio agiri honen xedea diren zerbitzuen kalitatea baloratzea, eta bere ahalmena da lantaldeko edozein kide aldatzeko eskatzea, hamabost egun lehenago jakinarazita, kategoria bereko edo goragoko beste batez, baldin eta hori gomendatzen duten arrazoi justifikaturik badago.

Enpresa esleipendunak lan-taldeko langileren bat aldatzea proposatzen badu, idatziz eskatu beharko du hamabost egun natural lehenago, eta baldintza hauek bete beharko ditu:

- Justifikazio idatzia, zehatza eta nahikoa, aldaketa eragin duen arrazoia azalduz.
- Eskatutako titulazioa duen ordezkoa edo ordezkoak aurkeztea.
- EJIEko Giza Baliabideen Sailak ordezkoak onartzea.

Langileen ordezkapenek lan-ingurunera eta proiektura egokitzeko sor ditzaketen eragozpenak kostu gehigarririk gabeko gainjartze aldien bidez konpondu beharko dira, behar den denboran. EJIEren iritziz hori ezinezkoa bada, ordezkoak lan egindako lehen bi asteak ezin izango dira fakturatu, eta enpresa esleipendunak ordaindu beharko ditu.

4 Jarraipen, kontrol eta gainbegiratzeko mekanismoak

Zerbitzuaren kalitatearen kontrola eta jarraipena EJIEko Giza Baliabideen Sailak egingo du.

Zerbitzua garatu eta gauzatzen den bitartean, EJIEko Giza Baliabideen Sailak kalitate-kontrolak ezarri ahal izango ditu garatutako jardueran.